



argitalpena

GAZTETXULO

2002. IZAN LOISAGABE

Urteko lehen 'Gaztetxulo'. Urte berriarekin batera, *Gaztetxulo* berria ere heldu da Euskal Herri osoko kioskoetara. Gainera, 2002. urteari begira hainbat erreportaiak dakartza. Batek *Baietz egin!* izenburua du, eta urte berrien atarian egiten ditugun promes guztiak hartu ditu oinarri. Horiek konplitzeko aholkuak ematen dizkigute. Beste erreportaiak batek, berriz, *Ezetz egin!* du izenburua; bertan, sexu erronka berezia egiten die irakurleei.

Ekologiak ere tarte berezia hartu du zenbaki horretan. Euskal Herrian datozen urteetan egitekoak diren proiektu erraldoiak bildu dituzte, arriskuan dauden landare eta animaliak aztertutuzte, eta ingurumena zaintzeko hainbat aholku eman. Elkarriketen atalean, aste honetan Gorka Torre Demoak taldeko kide, idazle eta kazetariarekin mintzatu dira.

Ohiko atalek ere badute tarte. Hala, musikan Cuerno de Chivo eta Kuraia taldeak ageri dira, *Hontzaren Uluan*-n Laudio-ko gau giroa aurkezten digute, urte berrirako filmen aurrerape- na egiten digute, Internet, disko kritikak, liburu proposamenak...

21:00etan, afari berezia egingo du- te ikus-entzunezko emanaldiekin, bertso zaharrekin, bat-bateko saio-ekin... Anade Elkartean izango da.

Ikastaroak

Dantza garaikidea/Azpeitia. Otsaile- an dantza garaikideari buruzko ikastaroa egingo dute Azpeitiko Za- po Etxe Gaztegunean. Bi hilabete iraungo du. Izena emateko, xeheta- sun gehiago jakiteko edo prezioa- ren berri izateko Azpeitiko Gazte In- formazio Bulegora jo behar da.

Antzerkia

Errail/Zaldibia. Bihar, antzerki ema- naldia izango da Zaldibiako Kultur Etxean. Besaingo Errail taldeak Jor- di Teixidoren *Txirularien erretaula* saioa eskainiko dute. Saioa 22:15ean hasiko da.

Zirkua/Santurtzi. Hangzhou zirkua akrobatikoak Santurtziko Serantes Kultur Etxean eskainiko du gaur be- re emanaldia. 19:00etatik aurrera izango da.

Frank Derleth/Bilbo. Frank Derleth- ek *Espectros* saioa eskainiko du, gaur, bihar eta etzi, Bilboko Aiara ant- zokian, 20:00etan.

Dar Dar/Balmaseda. Alizia bitxi- ke- rien *lurraldean* saioa Balmasedan erakutsiko du gaur Dar Dar taldeak. Ateneoan izango da, 18:00etan.

Markeliñe/Bilbo. *La vuelta al mundo en 80 días* antzezlan Bilbora hel- duko da asteburuan, Euskalduna jauregira. Gaur eta bihar bi saio izango dira, bata 16:00etan eta bestea 18:00etan, eta larunbate- an 11:30ean ikusi ahal izango da.

Shambhu Teatro/Zizur Nagusia. Na- farroako Shambhu taldeak *Recreo* saioa emango du gaur, 18:00etan, Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

Proiesmo Cero/Gasteiz. Garcia Lor- ca antzokian euskarazko antzerkia izango da gaur, 18:00etatik aurre- ra. *Bastoa, itzuili loreak...* antzezla- na izango da ikusgai.

Amor tres delicias/Donostia. *Amor tres delicias* (R. Mendizabal) antzez- lana Donostiako Antzoki Zaharrean dago ikusgai, gaurtik igandera bi- tartean. Bihar 20:00etan izango da saioa, larunbatean 20:00etan eta 22:30ean, eta igandean 19:30ean.

Zirkua/Mungia. *Mugak salta zirkua* izeneko saioa izango da ikusgai, bihar, Mungian. 18:30ean izango da pilotalekuan.

AHTren aurkako borroka eztabaidagai

Jon Maya

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea Abiadura Handiko Trenaren aurkako eki- men baten gune izango da gaur arratsaldean. Han izango dira Miquel Amoros bartzelonarra, eta bera gidari dela, hizketaldia eta eztabaida egingo dute mu- gimendu honen inguruan, AH- Tren Aurkako Asanbladak eta Felix Likiniano Kultur Elkartek antolatuta.

Amorosek Katalunia eta Va- lentiako AHTren aukako mu- gimenduak oso gertutik ezagu- tzen ditu, eta bertan jazotako gorabeheren berri emango du lehenik eta behin. «Plataforma moduan lan egiteak ekarri di- tuen ondorio kaxkarrak azal- duko ditu lehenengo», dio Likiniano Elkarteko Zorionek; «AHTren aurkako borrokak bi- de hori hartu zuen herrialde ho- rietan, eta, azkenean, eragin- kortasun falta nabarmendu da gehien». Zorionen iritziz, «ho-

rrrenbeste talde, alderdi politi- ko, eragile eta abar elkartzen direnean zenbait ekintza sinbo- liko egiten dira, baina benetako jarraikortasunik eta indarrik gabe».

Egitate horietatik abiatuz, Miquel Amorosek Abiadura Handiko Trenaren aurkako ant- olamendua aztertze-ko ezta- baida proposatuko du. Bi eredu nagusi ageri dira, asanbladak eta plataformak, eta baliaga- rriena zein ote den aztertzen saiatuko dira.

Bestalde, AHTren aurkako borrokak kontuan hartu beha- rreko beste hainbat afera ere landuko dira hizketaldian, Zo- rionek esan digunez: «AHT eredu ekonomiko baten ondo- rioa denez, ikusi beharko da AHTren aurkako borrokak zein jarrera hartu behar duen beste

jazoera orokorragoen aurre- an; Euskal Herrian AHTren aurkako taldeak herri maila- koak dira (trenak eragin zuzene- na izango duen herrietan sor- tutakoak), eta modu oroko- rrago batean presioa egiteko nola jokatu behar den...».

Miquel Amorosek AHTren aurka antolatutako jardunaldi batzuetan izan zuen lehenengo harremana Euskal Herriko mu- gimenduarekin, eta orduko hartan eragin handia sortu zuen euskal taldeetako kideen- gan. Bartzelonarra hainbat la- nen egilea da (AHTren aurkako diskurtsoa, AHTren arrisku handia...), eta testu horiek denak oso ezagunak dira AHTren aurkako euskal mugimendue- tan. Barne komunikazio eta ez- tabaidan oso baliagarriak izan dira horiek denak, eta gaurko eztabaidaren oinarri ere izango dira.

GAUR, 18:30EAN

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean



Hankagorri/Balmaseda. *Asto Bira* ari dira egiten Euskal Herrian zehar Hanakagorri taldekoak. Bihar Bal- masedara helduko dira, eta euren saio erakutsiko dute Ateneoan. Emanaldia 18:00etan hasiko da.

Oliver Twist/Santurtzi. Bihar, 19:30ean, Charles Dickens-en ant- zezlan klasikoa ikusteko aukera izango da Serantes kultur etxean.

Dantza

Izarren Jaialdia/Iruñea. Gaur eta bihar *Izarren Jaialdia* izeneko saioa

izango da Gaiarre antzokian. Ber- tan, Euskal Herriko eta atzerriko hainbat dantzarik bakarkako saio la- burrak eskainiko dituzte. Mundu osoko dantzari onentsuenetako ba- tzuek hartuko dute parte jaialdian, dantza klasiko zein garaikide arloan. Lucia Lacarra, Cyril Pierre, Rut Mi- ro eta abarrek hartuko dute parte. 20:00etan hasiko dira bi eguneta- ko emanaldiak.

Nats Nuts/Zornotza. Nats Nuts tal- deak *Set* ikuskizuna taularatuko du Zornotza aretoan, gaur,

19:00etan.

Nats Nuts/Durango. Ostiralean, tal- de berak Durangon eskainiko du saioa, baina oraingoan *Caixes* ikus- kizunarekin. 19:00etan da hitzor- dua, San Agustin Kulturunean.

Intxaur kraskailua/Gasteiz eta Bara- kaldoko. Ukrainako Gazte Baleta Eus- kal Herrian dabil egunotan, *Intxaur kraskailua* obra klasikoarekin. Bihar Gasteizen izango dira, 20:30ean, Principal antzokian, eta igandean ordu berean Barakaldo antzokian.

lean, *Chocolat* filma emango dute bideoz, eta asteazkenean sukaldar- itza lantegia egingo dute 18:00etan, 300 pezetaren truke.

Bertsolaritza

Bertso astea / Zumaia. Larunbatz geroztik 3. Bertso Astea ari dira egiten Zumaian, eta aste honetan ere hainbat saio egingo dira ekitaldi horren barruan. Gaur, esate bate- rako, *Mende bat bertsoetan* emanal- dia eskainiko dute Jon Maiak eta Xabier Amurizak Foronda Kultur Etxean, 19:00etan. Bihar, berriz,